

TALAIAN

Neoliberalismoaren txapeldunak

EAEko gobernu eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak "neoliberalismoaren txapeldunak" dira eta Kontzertu Ekonomikoa baliatzen dute "errenta altuenak sarituz, Euskadi paradisu fiskal bihurtzeko". Horren argi agertu du egoera ELA sindikatuak egindako azken agerraldian. Sindikatuaren egozpena ez da demagogikoa, datu erreal eta ofizialetan oinarritua baizik. Izan ere, erakunde horiek 1.396 milioi euroko superabita lortu zuten 2007an, %20,8 baino altuagoa. Eta bien bitartean, EAE Europako gizarte-babeserako zerbitzuetako azken postuetan dago. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak barne-produktu gordinaren %18,9a gastatzen dute gizarte-babesean eta Nafarroak %17,5a. Europako batez bestekoa berriz, %27,6koa da. Azken zortzi urteotan, foru eta erkidego-administrazioek 5.000 milioi eurotik gora gutxiago gastatu dituzte. Gainera, Foru Ogasunek ahalbidetu dute "aberatsenek zerga gutxiago ordaintzea" eta horrek talka egiten du bilatzen den aurrerakuntza eta zuzentasun fiskalarekin.

Beraz, bidezkoa da sindikatuak erakundeen jarrera eskandalagarritzat hartu izana. Dirua egonik ez delako gastatu nahi. Eta asetzeko behar ugari egonda ere –zahartzarora, osasuna, langabezia, familia, etxebizitza...–, ase gabe jarraitzen dutelako superabita egon arren. Bitartean, azken hamar urteetan, 1.000 milioi euroko enpresa errenten alde egin da. Gainera, sozietateen zergak beherantz jarraitzen du. Politika horiei esker, agerian geratu da erakunde horien izaera. Sindikatuak arrazoi du: neoliberalismoaren txapeldunak dira.

Juan Mari Arregi

Ukan abestia eta bideoklipa

HONEZKERO ikusia eta entzuna izango duzu. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak iazko *Pixka bat es mucho* leloa berreskuratu eta abestia zein bideoklipa prestatu ditu. Abesti alaia, dibertigarria aurkeztu nahi izan du HPSk euskara tristurarekin eta desanimuarekin inolaz ere lotu nahi ezta. *Pixka bat es mucho* leloari helduz, euskara gutxi ala asko jakin, denak hizkuntza erabiltzera animatu nahi ditu HPSk. Abestiari eta bideoklipari buruzko informazio gehiago: www.pixkabatesmucho.com

Aezkoako bizimodu eta euskara

40 LAGUN elkarrizketatu dituzte Aezkoan (Nafarroa) Eusko Kultur Fundazioaren eskutik, XX. mendeko aetzak nola bizi ziren jakiteko. 40 elkarrizketatik 16 euskaraz egin dituzte. Batzuek urteak zeramatzen aezkeraz jardun gabe eta iker-tzailearen euskara batua ulertzen ere lanak izan zituzten.

BAHEA

Jone Berriozabal Eusko Legebiltzarreko EAJko parlamentariak euskarari buruz *Berrian* esanak: "EAJk aurrera egin nahi du eta aurrerako bide horretan euskal gizartea izan nahi du bidelagun. EAJk bide hori denborak eta erritmoak neurtuz eta errespetatuz egin nahi du, zuzena eta bidezkoa den malgutasunez jokatzu baina iparra galdu gabe. Horiek dira gure bide-erakusleak: malgutasuna, progresibotasuna, eskuzabaltasuna, esfortzua eta gure eskura dauden eta beharrezkoak diren baliabide guztien erabilera. Horiek bai, ez ordea batzuek darabilten liskar eta politizazio nahia".

Uda 08
Gabriel Aresti euskaltegia*

Eskaintza zabala

- * Barnetegiak Bilbo eta Bakailun
- * Ikastaro trinkoak 3 eta 5 ordutakoak
- * Autoikaskuntza
- * Tailerrak
- * Gaste zein heldu
- * Goizez eta arratsaldez
- * Hotalla, abuztua eta iraila

25 urte! www.gabrielaresti.com Elkartan

Done Bikendi 2 - 4. solairua 48001 - Bilbo - tel: 94 423 75 91

Legea eta herritarren gehiengoa aurrez aurre direnean

EZ DA EZOHIKOA Jaurlaritzako hiruko alderdiek gai beraren inguruan ikuspegi desberdina eskaintzea, eta normala ere bada, alderdi desberdinak diren heinean. Bitxiagoa da kontsultaren gaia Legebiltzarrean aurkezteko bi aste pasatxo besterik geratzen ez denean, bozketaren ondorengoari buruzko iritzi kontrajarriak gizarteratzea, batez ere EAJk eta Eak. Iñigo Urkulluk argi adierazi du Auzitegi Konstituzionalak egitasmoa atzera botatzen badu, erabakia onartu egingo dutela eta EAJk egoerari aurre egiteko beste moduren bat pentsatuko duela, beti ere legedia errespetatuta. EAKo lehendakari Unai Ziarretak, aldiz, bestelako jarrera iradokitzen du: "Espainiako legediaren menpe jartzen baldin bagara ezer egin gabe, gure herriaren etorkizunak jai du". Ibarretxe lehendakariak, aldiz, ez du egoerari aurreratzeko asmorik. Beste batzuetan legez, ez du Urkulluk esandakoa berretsi, eta behin eta berriz temati azpimarratzen du kontsulta proiektuan ez dagoela legez kanpikorik.

Ez dago zalantzarik legearen barruan aritzeko EAJk duen bokazioaz, baina azaldu beharko da baita ere nola gainditzen den Espainiako legea eta ikuspegi demokratikoaren arteko talka. Espainiako Estatuak ez du gainditu Konstituzioak azken 30 urteetan euskal gizartearen duen legitimazio arazoa eta berau gainditzeko hainbat ahalegin eta proposamenen aurrean, legea ikuspegi demokratikoaren aurrean jarri du beti.

Adibide asko aipa daitezke, baina esanguratsuenetakoa da Eusko Legebiltzarrak 2004an onartu zuen Estatutu berriari Madrilgo Diputatuen Kongresuak eman zion ezetza. EHAK kontsulta lege-proiektuari baiezkota ematen badio berriz gerta-



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Ibarretxe lehendakaria kontsultaren lege-proiektua Eusko Legebiltzarreko lehendakari Izaskun Bilbaoaren eskuetan uzten. Bi aste besterik ez dira falta D egunerako.

tuko dena, oraingoan Auzitegi Konstituzionalaren bidez. Kataluniako Legebiltzarrari ere berdin gertatu zitzaion Madrilak atzera bota zuen Estatutuarekin. Legea euskal herritarren gehiengoaren aurretik jartzen du Espainiak eta hori da onartu ezin dena. Horrexegatik eskatzen da legea herritarren borondatarean egoki dadila, eta egiten ez bada zilegi da legea aintzat ez hartzea.

Ezin da, besterik gabe, Espainiako gehiengoaren zilegitasuna onartu. Espainiako lege asko indarrean jartzen dira behin eta berriz, baina ez zilegitasuna dutelako, atzean zigorra edo indarraren mehatxua dutelako baizik. Adibide zehatzagoetara joz, ezin dira Alderdien Legea eta bere ondorioak onartu, ezin dira Espainiako auzitegi eta epaileen legeen izenean hartzen dituzten erabaki ugari onartu. Espainiako zuzenbide estatuak egun dituen defizit larri horiek guztiak bideratu ezean, gizartearen zati oso handi batek nekez ulertuko du hemen egoera demokratikoa bizi denik.

BAINA MADRILGO legearen zilegitasuna zalantzan jartzen duen gizarte sektoreak nekez egingo du aurrera ETAK bere jarduera armatuarekin jarraitzen duen bitartean. Joan den asteburuan *El Correo* egunkariaren aurka izan zen, Euskal Herriko egunkari saldu eta irakurrienaren aurka. Bai, ezaguna da euskal gizartearen konpondu gabeko gatazka politiko bortitza hor dagoela eta hori bideratu gabe horrelakoak gerta daitezkeela. Hori da bat eta bestea ETAK egin dezakeen edozeri horrekin bakarrik erantzutea. Errealitatea hori baino askoz korapilatsuagoa baldin bada, erantzun egin behar zaio. Euskal gizartearen gehiengo oso zabalak ez ditu onartu *Egin*, *Egin Irratia* edo *Egunkaria*-ren itxierak. Ezta Teresa Toda edo Javier Salutregi beren kazetari jardueragatik espetxeratzea. Eta hala ere itxita daude edo espetxeratu egin dituzte. Gizartearen gehiengo handienak ere ez du *El Correo*-ren aurkako atentaturik onartzen. Eta, hala ere, gertatu da. Bada parekotasunik.